



Derrigorrezko bigarren hezkuntza

Ekintza

Etiketek esaten dutena

Baliabideak

Internet, ikasmaterialak

Helburuak

- Zerbait era arduratsuan erosteko irizpide batzuk kontuan hartu beharraz ohartu.
- Ingurumenaren babesa bermatzen duten zenbait etiketa ezagutu.
- Zenbait eskola materialen produktu desberdinen artean aukeratzeko ingurumen irizpideak aplikatu.

Konpetentziak

- Zientzia-, teknologia- eta osasun kultura.
- Informazioaren tratamendua eta teknologia digitalaren erabilera.
- Gizartea eta herritartasuna.

Iturriak

- Badalonako eskolen erosketa berdeari buruzko informazio zehatzak eta praktikotasun handikoak:

<http://bit.ly/z63926>

- Ingurugeletan informazioa



Jarduera:

Eskolan erabiltzen den materialik garrantzitsuenetako bat papera da. Zein lehengai behar dira papera egiteko? Ura eta energiaren gain, zuhaitzen zuntzak behar dira.

Non daude papera egiteko zuntzak? Zuhaitzetan, noski. Baina non daude baita ere zuhaitzen zuntzak? Ba erabilitako paperak ere baditu eta horregatik, papera bi aldetatik ongi aprobetxatuta dagoenean birziklatzeko ontzira botatzen dugu, paper berria egiteko. Hortaz, ni papera erostera noanean, zer izango da egokiagoa, zuhaitzak bota eta bere zuntzekin egindako papera ala birziklatutako paper zaharraren zuntzekin egindakoa? Hobe da bigarren aukera hau, zeren eta modu honetan zuhaitzik ez dugu botako eta basoak mantenduko ditugu.

Baina zuhaitzak ez botatzeaz gain, zein beste abantaila ditu paper birziklatua erosteak?

		Ur-kontsumoa (litro)	Energia kontsumoa Kw.h	Hondakin- ekoizpena (kg)
1 Tona paper ekoizteko	Lehengai Zuhaitz / kg egur			
Paper arrunta	12 / 2.000	250.000	4.750	1.500
Paper birziklatua	1.250 kg erabilitako paper	10.000	2.750	- 1.000*

(* zenbaki hau negatiboa izateak esan nahi du zabortegiari 'kentzen' zaiola.. Iturria: Equipo Mandrágora)

Produktuen etiketak

<p>Puntu berdea</p>	<p>Sinbolo horren bidez, jakinarazten da produktua ontziratzen duen enpresak kanon bat ordaindu duela produktua ontzi-hondakin gisa kudeatzeko eta, ondoren, birziklatzeko. Hala ere, ez du informaziorik ematen produktuaren ingurumen-kalitateari edo ontziak duen produktuari buruz.</p>	<p>Möbius zirkulua</p>	<p>Sinbolo hau produktu birziklagarri zein birziklatuetarako erabiltzen da. Barruan % bat badu, produktua egiteko erabilitako material birziklatuaren ehunekoak adierazten du. Berez, ez du balio produktuaren ingurumen-hobekuntza ezagutzeko.</p>
----------------------------	---	-------------------------------	---

	<p>AINGERU URDINA</p>	<p>BELTXARGA ZURIA</p>	<p>EUROPAKO ETIKETA EKOLOGIKOA</p>	<p>FSC</p>	<p>PEFC</p>
<p>Zuntz-mota</p>	<p>Birziklatua</p>				
<p>Zuritze-mota</p>	<p>Birziklatua edo modu jasangarriari (ehuneko handiagoan edo txikiagoan) kudeatutako basoetatik ateratako zurez egina</p>				
<p>Hobekuntzak paperaren fabrikazio-prozesuan</p>	<p>Erabat klororik gabea (TCF)</p>		<p>Erabat klororik gabea (TCF) edo Partzialki klororik gabea (ECF)</p>		
	<p>Bai</p>	<p>Bai</p>	<p>Bai</p>	<p>Ez</p>	<p>Ez</p>

Orain pentsatu papera erostera joan zarela dendara eta bertan taulako ikurrak dituzten hiru paper mota desberdin daudela. Zein erosiko zenuke ingurumenari kalte gutxien egiteko? Arrazoitu.

Ondorengo koadroetan produktu mota desberdinen etiketak daukazue. Banatu etiketak taldeka, aurkitu horietako bakoitzaren informazio gehiago, etiketa horiek dituzten ikastetxeko material eta tresnen adibideak eta azkenik ikastetxean dituzuen material eta tresnak ordezkatzeko alternatibak proposatu (beheko taula osatu).

<p>ELEKTRATRESNAK Europa Batasuneko eragikortasun energetikoaren etiketa: 'A' motakoak lehenetsi.</p>	<p>PLASTIKOAK birziklatua.</p> <p>PP (polipropilenoa), PE (polietilenoa) edo zelulosa azetatatzeko</p>
<p>ELIKADURA EKOLOGIKOA Europako Batasuneko nekazaritza ekologikoa, CE kontrol-sistema</p> <p>Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseilua. www.eneek.org</p>	<p>EHUN-GAIK Azken produktuan sustantzia kaltegarriarik gabea (Oekotex)</p> <p>Produktuaren guztizko zuntzen % 70 eta % 95a artean nekazaritza ekologikoan dute jatorria</p>
<p>EKIPO INFORMATIKOAK Europako Etiketa Ekologikoa</p> <p>AEBko Ingurumenaren Babeserako Agentzia Enpresekin lankidetzan</p>	<p>Kudeaketa jasangarria duten baso-ustiapenetako egurra</p> <p>Bidezko Merkataritzaren FAIRTRADE Ziurtapen Zigilua (FLO)</p>

MATERIALA	GAUR EGUNGORA	ALTERNATIBA BERDEGORA
_____	_____	_____
_____	_____	_____
_____	_____	_____
_____	_____	_____